

AURREKINAK. DIAGNOSTIKOAREN GARAPENA

Aretxabaletako gizon eta emakumeen berdintasunerako lehenengo planean, ondorengo helburu orokorra jasotzen da: “Tratu txarren eta sexu erasoen biktimen babes eta laguntza deiei erantzuna ematea, eraginkortasunez, era koordinatuan eta kalitatez, horretarako EAEn ezartzen diren tratu txarren eta sexu erasoen aurrean gauzatu beharreko tokiko protokoloak erabiliz.”

Gaiak duen garrantzia ikusirik eta 2010 urtean udal gobernuak, Emakunderen diru-laguntza baten bitartez izan zuen inplikazioa kontuan izanik, Aretxabaletako tratu txarren eta sexu erasoen biktimei laguntzeko protokoloa egin zen. Horrekin batera gainerako instituzioen sentsibilizazioa ere landu zen.

Prozesuak, arazoak dituen zailtasunak agerian utzi zituen, biolentziak herrian duen eragina ikustarazi zuen eta gaien sakontzea eta Aretxabaletan parte hartzen duten eragile guztien artean sentsibilizazioa lantzea ahalbidetu zuen.

Hasieratik prozesuan parte hartu zuten eragileak ondorengoak izan dira, horietako batzuk udal mailakoak eta beste batzuk eskualdekoak:

- ▶ Udaltzaingoa
- ▶ Udaleko gizarte zerbitzuak
- ▶ Aretxabaletako Osasun Zentroa
- ▶ Debagoieneko ospitaleko larrialdi zerbitzuak
- ▶ Bergarako Ertzaintzaren Polizia-etxea

DIAGNOSIAREN FASEAK-PROTOKOLOA

Diagnosi-protokolo honek ondorengo faseak izan zituen:

- ▶ Biolentziaren gaian sakontzea
- ▶ Erakunde desberdinak eta bakoitzaren funtzionamendua ezagutzea.
- ▶ Baliabideak ezagutu eta jasotzea, bai udalekoak, bai eskualdekoak baita beste erakunde batzuetakoak ere.
- ▶ Biolentzia egoera baten aurrean, Aretxabaletako emakumeen laguntzarako erakundeen artean ematen den elkarrekiko lanean eta koordinazioan sakontzea.
- ▶ Eragile guztiak mahai baten bueltan jartzea, haietako bakoitzak jakin dezan beste erakundeek emango dituzten pausuak, emakumeei eman beharreko laguntza ahalik eta koordinatuena izan dadin (biktimizazio bikoitzarekin bukatu ahal izateko).
- ▶ Etorrizunerako, lan koordinatuaren beharra erabakitzea.

2011ko lehen hilabeteetan zehar, protokoloa egiteko prozesua amaitu zen, emakumeei eman beharreko laguntza garbi zegoela ikusita eta oinarritzko erabaki batzuk hartu ondoren. Gainera oso garbi geratu zen beharrezkoa zela talde bezala aurrerantzean ere lankidetzan jarraitzea.

Ondoren, Aretxabaletako udaletik bi lan lerro sustatu dira, emakumeen kontrako biolentziaren aurkako borrokan:

- ▶ Instituzioetako teknikoen arteko lan koordinatua, bilera sistematikoen bitartez, eta taldeari zuzendutako prestakuntza saioak.
- ▶ Emakumeen kontrako biolentzia egoeren aurrean udalak eman beharreko erantzun publikoaren inguruko azterlana. Horretarako gogoeta prozesu bati eman zitzaion hasiera, non ertzantzaren laguntza izan zen eta baita beste udal batzuetatik jasotako norabideena. Prozesuaren ondoren, honako hau erabaki zen Aretxabaletarako:

A. *Herrian hilketak bat gertatzen bada: Udalak ez ohiko batzarra egingo du eta alderdi politiko guztiek mozio bat adostuko dute, eta ondoren aurkeztu egingo dute. Gainera herriko plazan kontzentrazio bat deituko da.*

B. *Euskal Herrian izandako emakume baten hilketaren aurrean, hura hil eta hurrengo egunean herriko plazan kontzentrazioa deituko da.*

C. *Emakumeen aurka ematen diren biolentzia egoera guztiak salatzeke, herriko sarreretan "Aretxabaletak ez du indarkeria matxistarik onartzen" lema eramango duten panel finkoak jarriko dira.*

(Ondorengo hau gizarte zerbitzuen batzordean erabaki zen eta gobernu batzordean onartu)

EGUNGO EGOERA

Lehen koordinazio mahaia eratu zenetik, erakunde ezberdinetako teknikarien elkarlanak jarraipena izan du. *(denbora tarte honetan guztian eman diren biolentzia egoeretan emakumeei eman zaien laguntzan egiaztatu ahal izan den bezala).*

Ez dago, erakunde ezberdinen artean dagoen lan koordinatuaren berri jasoko dituen, erakunde bakoitzeko arduradunak sinatutako inolako agiririk.

Horregatik, orain 2013. urtean egoki ikusten da teknikarien arteko koordinazio bilera bat egiteaz gain, erakunde bakoitzeko arduradunak elkartzea eta ondorengo idatzia sinatzea.

Agiri hau sinatzen duten erakundeek ondorengoa erabaki dute:

- ❖ Protokoloaren helburu nagusia da: Genero biolentziaren edo sexu erasoen biktima izan diren emakumeei eman beharreko laguntza hobetzea.
- ❖ Aurrera eraman beharreko jarduerak, erakunde ezberdinen artean koordinatuko dira, biolentzia sexistaren biktima diren pertsoneri eman beharreko laguntza hobetzeko (genero biolentzia edo sexu eraso delituak) erabakitako prozedurak aurrera eramanez.
- ❖ Koordinazio mahaia eratuko da (jarraipena) protokoloari jarraipena egiteko, eta bertan teknikariek parte hartuko dute. Erakunde bakoitzean erreferente bat izango da. Erakunde bakoitzeko erreferente horri (mahaian parte hartzea oso garrantzitsua dela ikusirik) bere erakundeak, mahaian parte hartzeko behar dituen baliabideak emango dizkio (ordutegietan malgutasuna, beren lanen murrizketa edo egokitzapena...) lan ildo honetan lan egiteko (Erreferenteen taula)
- ❖ Interesgarria litzateke biolentzia sexistaren kontrako borrokaren inguruko prestakuntzarekin jarraitzea, koordinazio mahaian parte hartzen duten erakunde ezberdinetako pertsonekin.

- ❖ Erakunde parte hartzaileek, bere erakundean laguntza jaso duten pertsonen ezaugarrien berri emango diote koordinazio mahaiari eta horretarako konpromisoa hartuko dute (fitxa proposamena) ahal den neurrian. Datu horiek aztertzearen helburua da, kaltetutako biztanleriaren ezaugarriak ezagutzea, bere beharrak zeintzuk diren jakitea eta horrelako prozesu batek dituen zailtasunak ezagutzea.
- ❖ Erakunde bakoitzak bere barne funtzionamenduan eta bere eragin eremuan, lan bateratua bultzatuko du emakumeen aurkako biolentziaren kontrako borrokan.
- ❖ Erakundeek ebaluazioak egingo dituzte.

Aretxabaletan 2014ko maiatza

Debagoieneko Ospitalearen
izenean

Bergarako Ertzaintzaren
izenean

Osakidetzaren izenean
(Aretxabaletako Osasun
Zentroa)

Aretxabaletako udalaren
izenean